

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

Gazteriaren Foru Erakundeak garatutako programen kudeaketa arautzen duena araudia onesteko erabakia

Ekainaren 20ko 22/1988 FORU ARAUAK, Gazteriaren Foru Erakundeak erakunde autonomoa eratzen duenak, 2. artikuluan xedatutakoaren arabera, Gazteriaren Foru Erakundearen xedek dira gazteriaren hezkuntza eta sustapen osoarekin lotura duten edozein eratako ekintzak antolatu, kudeatu, prestatu eta gauzatzeko Arabako Lurralde Historikoan, bai eta azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanenak, ezarritako eskumenen esparruan ere.

Helburu horiek betetzeko, Gazteriaren Foru Erakundeak haur eta gazteentzako jarduerak antolatzen ditu urtean zehar, hezkuntza, aisialdi eta astialdiaren arloan, aisialdi hezitzailea eta balioetan oinarritutako ikaskuntza indartzeko asmoz.

Horregatik, beharrezkotzat jo da administrazio prozedurak arautzea erakunde autonomoak antolatutako jarduera eta programetan parte hartzeko, bai eta, orobat, jarduera eta programa horiek garatzean gardentasunez jardutea, informazio publikoa eskuratzea eta egoki gobernatzea errazago izan dadin ere. Beraz, Gazteriaren Foru Erakundearen Zuzendaritza Kudeatzailtzak proposatu du onartzea erakunde horrek garatutako programak kudeatzeko araudia.

Horrenbestez, zerbitzu teknikoek xede horretarako egindako arauaren edukia, honen eranskin gisa doana, aztertu ondoren, gaurko egunez honako hau onartzen da,

ERABAKIA

Lehenengoa. Onartzea Gazteriaren Foru Erakundeak garatutako programen kudeaketa arautzen duen araudia, honen eranskin gisa doana.

Bigarrena. Baimena ematea Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzaileari araudia garatzeko beharrezkoak diren egintzak egin ditzan.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea. Erabaki honek argitaratzen den egunetik bertatik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoaren 1a

Administrazio Kontseiluaren burua
IGONE MARTINEZ DE LUNA UNANUE



ERANSKINA

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEAK GARATUTAKO PROGRAMEN KUDEAKETAREN ARAUDIA

AZALPENA

Gazteriaren Foru Erakundeak haur eta gazteentzako jarduerak antolatzen ditu urte barruan, hezkuntza, aisialdi eta astialdiaren arloan

Gazteriaren Foru Erakundeak eskaintzen dituen programa guztien funtsezko helburua da partaideei gune ludiko bat eskaintzea, integratzailea eta bazterketarik gabea, non hala nola berdinen arteko ezagutza eta elkarbizitzarako, esperientzia trukerako, talde lanerako, garapen fisiko eta emozionalerako aukerak sortzen diren eta bakearen, berdintasunaren, elkartasunaren, ekologiararen eta beste kulturekiko errespetuaren balioak bereganatzen dituzten.

Halaber, garrantzitsua da programa horietan, genero berdintasunaren arloko sentsibilizazio eta heziketa lana gizonen eta emakumeen arteko parekidetasun erreala arian-arian lortu arte, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko Euskadiko 4/2005 Legeak ezarritako eremuan.

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua.- Xedea.

Arau honen helburua da arautzea Gazteriaren Foru Erakundearen eskaintza publikoaren barruko aisia jarduera hezitzaileen programetan eta jardueretan parte hartzeko eskakizunak eta plaza horiek lortzeko eta esleitzeko prozedura.

2. artikulua.

GFEk antolaturiko jarduera guztietan bermatuko da euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Legeak xedatutakoa betetzen dela, beti ere, programa bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta.

3. artikulua.- Aplikazio eremua

Arau hau Gazteriaren Foru Erakundeak antolatzen dituen programa hauei aplikatuko zaie:

- **Udaraba:** Udako kanpaina, aisialdi hezitzaileko programa hauek osatzen dute:
 - o *Udalekuak.* 7 eta 13 urte bitarteko neska-mutilentzako udalekuak gazteentzako aterpetxe eta instalazioetan, Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundiekin batera antolatutak.
 - o *Gazte Bidaiak.* Jarduera hezitzaileak eta bidaiak 14 urtetik 17ra bitarteko gazteentzat.
 - o Gazteriaren Foru Erakundeak udako kanpainaren barruan egin ditzakeen izaera bereko beste jarduera batzuk.
- **Eskola programak.** Foru aterpetxeetan egiten diren lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleentzako programa hezitzaileak.
 - o ARABAZ BLAI Aisialdian hezteko programa da lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako lehen zikloko ikasleentzat, euskaraz bizi eta jokoen eta astialdiko jardueren bidez Arabako ondare historikoa eta kulturala ezagutzeko helburua duena.
 - o IKASGELAK. Aisialdian hezteko programa da lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako ikasleentzat, gelako kohesioa, jakintza eta konfiantza lantzeko helburua duena, jokoak, lantegiak eta astialdiko dinamikak egitearen bidez.
 - o ECO SCHOOL. Ingelesean murgiltzeko eta ekologia lantzeko programa da jatorrizko irakasleekin, bigarren hezkuntzako lehen zikloko ikasle arabarrentzat.
 - o THIS IS NOT AN ENGLISH CLASS Ingelesean murgiltzea lantzeko programa da jatorrizko irakasleekin, lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasle arabarrentzat.



II. KAPITULUA Partaideak

4. artikulua. Partaideak.

- 4.1.- Udako kanpainen parte hartu dezakete Arabako Lurralde Historikoko edozein udalerritan eta Trebiñun erroldatuta dauden neska-mutilek, baldin programa bakoitzerako urtero ezarritako baldintzak betetzen badituzte.
- 4.2.- Eskola programetan parte har dezakete Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñun dauden zentroak.

III. KAPITULUA Plazak esleitzeko eta lortzeko prozedura

5. artikulua. Plazak esleitzeko eskaerak aurkeztea.

Eskaerak bide elektronikoz aurkeztuko dira Gazteriaren Foru Erakundearen egoitza elektronikokoan (<https://gazteria.araba.eus>) eskuragarri dagoen inprimakia erabilita, bat etorritik herritarrek zerbitzu publikoetara sarbide elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak 27. artikuluan xedatutakoarekin.

6. artikulua.- Izena ematea

Arabako Gazteriaren Foru Erakundeak antolatutako kanpaiek honako faseak dituzte:

6.1. Izena emateko epea Udaraba programan

- UDARABAn izena emateko inprimaki bakoitzean hiru partaide sar daitezke gehienez:
- Pertsona eta programako eskaera bakarra onartuko da. Pertsona bera inprimaki batean baino gehiagotan agertzen bada, egindako azken eskaera baino ez da onartuko, eta baliogabetu egingo dira gainerakoak.
- Eskaerak eskatutako eskakizunak beteko ez balitu, interesdunari eskatuko litzaioke kasuan kasuko agiriak zuzentzeko edo aurkezteko. Horrela egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko da.
- Programarako izena emandako haurren ardura dutenak beti haien legezko tutoreak izan beharko dira, eta ez beste pertsona batzuk. Horrela izan ezean, plazak esleitzeko prozesutik kanpo utzi ahal izango dira.
- Izena ematerakoan datu faltsuak emateak, programatik kanpo uztea ekar dezake.
- Adimen ezintasuna duten partaideek bi urteko tarte izango dute benetako adinaren eta eskatutako txandarako eta instalaziorako eskatzen denaren artean, beti ere, instalazioak horrela uzten badu, baina ez dute, inolaz ere, 18 urte baino gehiago izango.

6.2. Izena emateko epea eskola programetan

- Parte hartzeko eskaerak Gazteriaren Foru Erakundeari igorriko zaizkio araudiak ezarritako eran, eta jaso ahalako hurrenkerari zorrotz jarraituz kudeatuko dira. Izena emateko epea amaitu ondoren, ikastetxe partaideak eta esleitu zaizkien datak argitaratuko dira web orrian.
- Eskola programetarako, eskera inprimaki bat bete beharko da gelako eta ikastetxeko.
- Eskola programei dagokienez, antolaketak ez du laguntzeko monitore edo laguntzaile espezifikorik izango desgaitasunen bat edo hezkuntza beharrezan bereziren bat duten ikasleentzat. Ikastetxeak berak izan behar du laguntzarako langile hori.



▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA
▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

- d) Hezkuntza programa guztietan ikastetxeko irakasleen parte hartzea eta laguntza eskatuko da. Egonaldia doakoa izango da irakasle batentzat, ikasgelako eta programako.

7. artikulua. Zozketa egin eta plazak esleitzea

7.1. Zozketa

UDARABA kanpainan plazen esleipenean aukera berdintasuna bermatu dadin, Gazteriaren Foru Erakundeak zozketa publikoa egingo du. Hala ere, zozketarik behar ez duten jarduerak ere izan daitezke. Izen emate bakoitzari zenbaki bat esleitzen zaio eta inprimaki horretan ageri diren pertsona guztiek zenbaki berarekin dute zozketan.

Zozketa publiko horren bidez, izen emate bakoitzak plaza aukeratzeko izango duen hurrenkera zehaztuko da.

UDARABA kanpainako programa bakoitzak bere zozketa izango du.

UDARABAREN zozketa egin ondoren, izena emandako pertsona bakoitzak egokitu zaion hurrenkera zenbakia kontsultatu ahal izango du web orrian, bai eta instalazioa eta txanda zein egunetan eta ordutan aukeratu behar duen ere. Plazak telefonoz edo bulegora joanez aukeratu eta esleitu ahal izango dira.

7.2. Plazak esleitzea

Hona nahitaez aurkeztu behar diren agiriak UDARABAREN kanpainan plazaren esleipena formalizatzeko:

- Esleipen fitxa aitak, amak edo tutoreak sinatuta.
- Mediku fitxa behar bezala beteta eta sinatuta. Medikuen egiaztagiria edo txostenak dieta edo tratamendu berezietarako.
- Orain dela gutxi argazki bat, karnet tamainakoa.
- Osakidetzako Banakako Osasun Txartelaren fotokopia edo partaideak, bestelako gaixotasun aseguru bat badu, haren txartelaren fotokopia.

Agiri guztiak aurkeztu baino lehen ordaindu beharko da kuota. Agiri horiek aurkezteko, 5 egun baliodun egongo dira gehienez, behin-behineko esleipena egin edo, hala dagokionean, eskatutako laguntza ekonomikoa eman den ala ez jakinarazi ondorengo egunetik kontatuta.

Eskatutako agiriak aurkeztu direla eta kuota egokia ordaindu dela egiaztatuta eta gero, esleipena egingo da. Azken hau, datu pertsonaletan bakarrik aldatu ahal izango da.

Inprimaki berean pertsona bat baino gehiago agertzen bada, esleipen hurrenkera zehaztuko da izena emanda dauden hurrenkerekin bat etorriko dena.

7.2.1. Integrazioko plazen esleipena ezinduentzat edo heziketa beharizan bereziko pertsonentzat. Pertsona ezinduei edo beharizan berezikoiei gorde beharreko plaza kopurua ezarri da, eta %5ekoa da "Udalekuak" programan, eta %3koa "Gazte Bidaia" programan. Pertsona horietako bakoitzak izena eman beharko du kanpainarako, eta bere egoera adierazi beharko du izena emateko inprimakian, laguntzeko monitore edo laguntzaile espezifikoak eduki ahal izateko. Adierazi ezean, Gazteriaren Foru Erakundeak ez du bermatuko horrelako monitoreak izatea.

Eskaerarekin batera, ezintasunaren egiaztagiria edo partaideak zer berrizan duen egiaztatzen duen txostena eta informazio pertsonalaren fitxa beteta aurkeztu beharko dira.

Zozketaren ostean, Balorazio Batzordea bilduko da, izen emate horiek aztertzeko eta partaidearentzat aukera egokiena zein den baloratzeko.

Integrazioko plazen balorazio Batzordeko kideak Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendariaren ebazpen bidez izendatuko dira. Horri begira, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako EAEko 4/2005 Legearen 3.7 artikulua ezarritakoari jarraituko zaio (4/2005 Legea, otsailaren 18koa). Hara nola osatuko den batzorde hori:

- Arabako Gazteriaren Foru Erakunde langile izendatuak.
- Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Gizarte Ekintzako Arloko pertsona izendatua.
- Egoki irizitako pertsona oro, erabakiak hartu aurretik aholkuak emateko. Pertsona aditu horiek hitz egiteko eskubidea izango dute, baina botoa emateko eskubiderik ez, Batzordearen saioetan.



Batzordeko kide diren pertsonak abstenitu egin beharko dira, eta haien aurkako errefusatzera ere abiarazi ahal izango da, Sektore publikoaren araubide juridikoaren 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan ezarritako eran.

4/2005 Legearen 23. artikuluan ezarritakoarekin bat (4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako Legea), hautapen batzordea osatzeko orduan bermatuko da gizonak eta emakumeak kopuru orekatu batean egon daitezela, guztiek izan beharko dituztelarik gaitasuna, trebetasuna eta prestakuntza egokiak. Horretarako, emakumeak eta gizonak izango ditu kide, eta joko da osaera orekatua duela legearen arabera, baldin eta sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkaritza badauka.

Balorazio Batzordeak, behin azterturik gurasoei edo pertsona zaintzaileei, edo, halakorik ezean, harreman estua duen entitateari eskatuko zaizkien txostenak, eskabideak baloratuko ditu honako ezaugarri hauen arabera:

- a) Ea hautatutako pertsonak egokiak diren, ofizialki ezagutu zaien ezintasun graduaren arabera.
- b) Ea baden integrazioarako aukerarik edo beharizanik «Udaraba» kanpainan, eta ea alde zurreratik hautatua izan den pertsonak ba ote duen instalazioaren ezaugarriak, jardueri eta jardueren hizkuntzari egokitzen zaien profilik.

Kasuak baloratu ondoren, plazaren esleipena egingo da Balorazio Batzordean erabaki diren irizpideei jarraituz eta gurasoei edo tutoreei lankidetzan, kontuan hartuz ea talde horrentzat gordetako plazarik dagoen instalazioetan eta aukeratutako txandetan, bai eta instalazioen ezaugarri arkitektonikoak ere.

Baldin eta, jardueran zehar hautematen bada adingabe ezinduek edo beharizan berezikiak egokitze, integrazio edo jokabide arazoak dituztela, eta horrek arriskua eragin ahal badu osotasun fisikorako, edo elkarbizitza eragozten badu, berba egingo da familiarekin edo arduradunekin, eta egoeraren berri emango zaie, konponbide bat eman diezaioten; hala, Gazteriaren Foru Erakundeak, kasu horietan, proposatu ahal izango du instalazioa aldatzea, edo are etxera garaiz baino lehen itzul dadila. Behin betiko esleitu ostean aukeran diren plaza guztiak, hutsik geratzen direnak txanda orokorrean eskainiko dira, eta hurrengo esleipenean beteko dira.

7.3 Itxaron zerrenda

Plazaren behin-behineko esleipena egiten denean, pertsona horrek, plazarik egon ala ez, gehienez ere hiru instalaziotako eta txandetako itxaron zerrendan egotea aukeratu dezake.

Itxaron zerrendan dagoen pertsona batek uko eginez gero bere eskaerarako plaza huts baten eskaintzari, zuzenean ezabatuko da pertsona hori ageri den itxaron zerrenda guztietatik.

IV. KAPITULUA

Kuota arautzea

8. artikulua. Kuota

8.1. Udaraba kanpainaren kuota

- a) Eskaini diren jardueretan parte hartzeko prezio publikoak edo tarifak kasuan kasuko ordainketak egin behar diren unean indarrean dauden prezio publikoak arautzen dituen foru dekretuak zehaztutakoak izango dira. Kuotaren ordainketa Internetetik egin daiteke, ordainketa pasabidearen bitartez, edo adierazten den banku entitate laguntzailean ordainketa gutuna aurkeztuta.
- b) Plazaren esleipena ez da behin betikoa izango harik eta kuota ordaindu dela edo eskatu diren agiriak aurkeztu direla egiaztatuta arte.

8.1.1 Hobariak

Gazteriaren Foru Erakundeak sustatutako jardueren kanpainan aplikatzeko kuota onartzen dituen dekretuan ezartzen dira hobarien zenbatekoak.

Hobari horiek kuota orokorrari aplikatzen zaizkio eta inola ere ezin daitezke metatu. Honako hauexek dira:

- a) Familia ugarietako hobariak. Familia ugariaren izaera beti adierazi beharko da izena ematerakoan. Izena emateko epea amaitu eta gero, ezin izango da eskatu hobari hau. Izaera hori eguneraturik egon beharko da eta indarrean egon izena emateko epearen barruan.



- b) Hobaria, laguntza sozialak (DSBE edo GLL) jasotzen dituzten familientzat. Hobari hau plaza esleitzeko garaian eskatu beharko da, horretarako eskuratuko den inprimakiaren bitartez, eta betiere kuotaaren ordainketa egin baino lehenago. Behar bezala betetako inprimaki horrez gainera, DSBEren kasuan, balioaldian dagoen ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, zeinean bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsona guztiak agertu behar diren. GLLren kasuan, hori jasotzen duela egiaztatzen duen eta balioaldian dagoen ziurtagiriaz gainera, familiaren erroldatze agiri bat aurkeztu beharko da, bertan jarduerarako izena emandako pertsona agertzen delarik. Laguntza sozialaren hartzaileak izaera hori izan behar du plaza esleitzen den unean.

8.2. Eskola programen kuota

- a) Eskaini diren eskola programetan parte hartzeko prezio publikoak edo tarifak kasuan kasuko ordainketak egin behar diren unean indarrean dauden prezio publikoak arautzen dituen foru dekretuak zehaztutakoak izango dira.
- b) Parte hartzen duten ikastetxeek kuota hori ordainduko dute Gazteriaren Foru Erakundearen aterpetxeetan ematen diren zerbitzuen eta jardueren prezio publikoen araudia onesten duen foru dekretuak ezarritakoari jarraituz.

8.3. Jardueran baja ematea eta kuota itzultzea

- a) Erakunde honi ahalik eta lasterren jakinaraziko zaio edozein jardueratan eman den baja.
- b) Kuota itzultzeko eskaera egiteko, inprimaki formalizatua aurkeztu behar da, agiri bidez adieraziz eta justifikatuz jardueren baja emateko arrazoia. Ordaindutako kuota ez da itzuliko, Gazteriaren Foru Erakundearen iritziz behar bezala justifikatutako arrazoia dagoenean izan ezik. Edonola ere, eskaerarekin batera justifikazio agiriak aurkeztuko dira.
- c) Jarduera hasi eta gero, ez da inola ere itzuliko kuota.
- d) Partaideek eskolan kalifikazio txarrak izatea ez da nahikoa arrazoi izango kuota itzultzea onartzeko.

Eskola programetan, eskaera erabat edo zati batean baliogabetzeko, edo partaide kopurua murrizteko, eskaerak Gazteriaren Foru Erakundearen aterpetxeetan ematen diren zerbitzuen eta jardueren prezio publikoen araudiak xedatutakoari lotuta egongo dira.

V. KAPITULUA

Xedapen bereziak eta erantzukizunak

9. artikulua. Erantzukizunak

- a) Guraso edo tutoreek, beren eta seme-alaben datuez gainera, monitore taldeak bere hezkuntza lanak betetzeko eta partaideek jardueran esperientzia ona izan dezaten jakin behar duen beste edozein informazio ere aurkeztu beharko dute.
- b) Gurasoen edo tutorearen erantzukizuna da Gazteriaren Foru Erakundeari jakinaraztea, nahitaez mediku fitxa betez, partaideak gaixotasunen bat (gaixotasun infekzio-kutsakorrik edo parasitosi, zorriak ...) duen jakinaraztea behar diren prebentzio neurriak jartzeko. Era berean, jakinarazi beharrekoa izango da, araudi honetako 12. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, partaideak etengabeko jarraipen mediku bat edo probak edo entseguak egitea dakarren mediku tratamendu edo ikerketa egiten dagoela, edo jarduera hasieran gaixorik dagoela.
- c) Adingabea jardueratik kanporatzen dutenean, gurasoen edo tutorearen erantzukizuna izango dira etxera eramatea eta gastuak.
- d) Eskola programetan, ikastetxeek izango dute erantzukizuna lehen adierazitako datuak emateko.



Gazteriaren Foru Erakundea
Instituto Foral de la Juventud

▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA
▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

- e) Gazteriaren Foru Erakundea ez da datuak ezkutatzek sortutako ondorioen erantzule egingo, eta beretzat gordeko ditu bidezko lege ekintzak burutzeko eskubidea.
- f) Udara programan, Gazteriaren Foru Erakundeak ezbehar aseguru bat kontratatuko du parte-hartzaileentzat.
- g) Gaixotasunaren ondorioz izandako gastuak ez ditu inoiz ere bere gain hartuko Gazteriaren Foru Erakundeak. Parte-hartzaileen aitak, amak edo legezko tutoreak ordaindu beharko ditu gastu horiek.
- h) Gazteriaren Foru Erakundeak UDARABA kanpainako jardueretan parte hartzen dutenekiko duen erantzukizunak, programa horretako jarduerak egiten ari diren denboran eta kasuan-kasuan ezarritako irteera lekutik eta helduera lekurako joan-etorrietan irauten du. Ondorioz, gurasoen edo legezko tutoreek berriz ere izango dute zaintza egin beharra Gazteriaren Foru Erakundearena bukatzen den momentutik, hau da, parte-hartzaileak kasuan-kasuan ezarritako lekura heltzen direnetik aurrera.

10. artikulua. Parte-hartzaileek bete beharreko arauak

Parte-hartzaileek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Kasuan kasuko instalazioen erabilera arauak betetzea eta, hala dagokionean, parte hartuko duen jarduerarako bereziki ezarritakoak ere bai.

- b) Gainera, honako arauak ere bete behar dira instalazio bakoitzera heldutakoan jakinaraziko diren arau orokorrez gain:

Ordutegia betetzea

Jarduera guztietan parte hartzea

Logeletan ez jatea eta ez edatea

Instalazioak eta erabiltzen den materiala ondo zaintzea.

Debekatuta dago ekitaldi politikoak edo alderdi politikoekin zerikusirik duten ekitaldiak antolatu edo horietan parte hartzea, hargatik eragotzi gabe legezko adierazpen askatasuna.

— Jarduera horiek elkarbizitzarako aukera bat direnez gero, ez da onartuko da beste pertsona batzueganako inolako jarrera baztertzaila, xenofobo edo beldurraraztekorik.

11. artikulua. Zehapen araubidea

- a) Gazteriaren Foru Erakundeak eskainitako programetarako ezarri diren elkarbizitza eta lankidetzara arauak ez betetzeak, edo, hala badagokio, gazte aterpetxeen barne arautegia ez betetzeak, jardueratik kanpo uztea ekar lezake.
- b) Kanporatzearen arrazoiak –arauak ez betetzeak edo kalte eta galerak egiteak alegia– duen larritasunaren arabera, Gazteriaren Foru Erakundeak eskubidea gordetzen du hari hurrengo urteetako eskola programetan, eta baita udako kanpainako programetan ere, parte hartzea galarazteko.

IV. KAPITULUA Guztientzako xedapenak

12. artikulua.- Xedapen erkideak.



- a) Jardueraren dinamika ez apurtzeko asmoz, ez da bisitarik onartuko. Gure programetan parte hartzen dutenek ezin izango dira instalaziotik irten edo bertatik joan jardueraren zuzendariaren baimena eta aitak, amak edo tutoreak izenpetutako erantzukizun eginbide egokia izan gabe.
- b) Jarduera garatzean mugatuta egongo da mugikorra, tableta edo antzeko tresnak erabiltzea Gazteriaren Foru Erakundeak inoiz ere ez duela erantzukizunik hartuko haren galeraz, lapurretaz edo jasaten dituen kalteez. Berdin izango da parte-hartzaileek jarduerara dakartzaten baliozko beste gauzekin edo diruarekin.
- c) Ez da baimenik emango parte hartzaileak jardueran sartzeko, baldin eta bi egun baino gehiago igaro badira jarduera hori hasi zenetik bi egun baino gehiago igaro badira.
- d) Ezin izango dute arautegi honetako helburu diren jardueretan etengabeko jarraipena, probak edo saiakerak egitea behar duen tratamendua edo mediku ikerketa hartzen ari diren neska-mutilek. Era berean, ez dira onartuko jarduera hasten denean gaixorik dauden partaideak. Gazteriaren Foru Erakundeak eskubidea gordetzen du ekintzak egiteko eskubidea horri buruzko datuak ezkututzen badira, eta araudi honetako 11. artikuluan ezarritakoa izango da aplikagarri.
- e) Parte-hartzaileek izena ematean osatzen dituzten taldeak errespetatzen ahaleginduko gara beti. 12 urtetik beherako umeak logeletan banatzeko, sexua ez da irizpide izango; baina, gure programetako hartzaileek 12 urte edo gehiago badituzte, sexuaren arabera banatuta eongo dira logeletan edo kanpadendetan, baldin eta instalazioak horretarako bidea ematen badu.

13. artikulua. Baldintzak onartzea.

Arautegi honen helburu diren kanpainetan parte hartzeko izena emateak, bertan adierazten diren baldintza guztiak onartzea dakar.

VII. KAPITULUA

Publizitatea eta datuen babesa

14. artikulua.- Publizitatea.

UDARABA kanpainari buruzko eta GFEn eskola programei buruzko informazio guztia web horri honetan argitaratuko da: <https://gazteria.araba.eus>

15. artikulua.- Datuen babesa.

Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoarekin bat etorritik, UDARABA programa izapidetzean jasotzen diren datu pertsonalak «datu horiek erabili eta argitaratzeko baimena emango dute interesdunek eskabideak aurkeztuta» «Kudeaketa» izeneko fitxategi batean gordeko dira. Arabako Gazteriaren Foru Erakundea da fitxategi horren titularra, eta segurtasun neurri egokiak darabiltza haur, nerabe eta gazteentzako jarduerak kudeatzeko, prozedura bera bideratzeko helburuz eta interesdunei prozesuaren garapenaren berri emateko helburuz. Gazteriaren Foru Erakundea da fitxategi honen organo eskuduna. Datuetan sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubidea aipatutako organo horretan egikaritu ahal izango dira, Gazteriaren Foru Erakundeko bulegoaren posta helbidera edo posta elektronikoko ifj@araba.eus helbidera mezu bat bidalita. Datu horiek beste erakunde publiko batzuei laga edo jakinaraziko zaizkie aurreikusitako egoeretan eta udako kanpainaren garapenerako behar-beharrezkoak diren egoeretan.

UDARABAn parte hartzen dutenen familiek baimena emango dute partaideei argazkiak ateratzeko, esleipen fitxa sinatuta. Eskola programen kasuan, ikastetxeek eurek jasoko dituzte familiengandik argazkiak ateratzeko banakako baimenak web orrian eta GFEn programetako egonaldiaren egunerokoan argitaratu ahal izateko.

Udako kanpainan edo eskola programetan parte hartzen duten ume bati argazkiak atera eta zabaldu ahal izateko, ume horren arduradunak argazki horiek lagatzeko baimena eman behar du. Irudiek ez diote adingabeen intimitateari eraso egin behar. Argazki horien bidez garatutako jardueraren adibide batzuk eman nahi dira, besterik ez; beraz, ez da bermatzen argazki horietan partaide guzti-guztiak agertzea.



VIII. KAPITULUA

Baliabideak

16. artikulua. Baliabideen araubidea

Arautegi honetan azaldutako prozeduretan izandako ebazpenen, argitalpenen eta izapideen aurka, interesdunek administrazio publikoaren administrazio prozedura erkideak arautzen dituen errekursoak jarri ahal izango dituzte.

IX. KAPITULUA

Beste xedapen batzuk

Lehen xedapen gehigarria. Garapena eta betearaztea

GFEn zuzendari-kudeatzaileari eskumena ematen zaio Gazteriaren Foru Erakundearen programetan eta kanpainetan arautegi hau garatzeko eta betearazteko behar den jarduketa eta ebazpen oro eman dezan.

Azken xedapena. Indarrean jartzea

Agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.